

BOTOJORRAN

■ Andoni Egaña

Kontuak amaitu dira; zenbaketaren garaia da.

Beti miretsi izan nau boto-zenbaketa-
ren bizkortasunak. Gure auzokoa izan
daitekeen norbaitek hasten du proze-
sua bere mahaiko hauteskontzia zabal-
tzearekin. Eta handik hiru ordura bi mi-
lio lagunek zeini botoa eman dioten ze-
hatz samar jakin ahal izaten dugu.
Teknikaren eta sistema on baten aban-
tailak nonbait. Inoiz pentsatu izan dut,
botoak kontatzen bezain bizkor, langile
eta ulerker jokatu bagenu eguneroko
elkarbizitzan, beste kuku batek joko li-
gukeela. Izaten dira bestelakoak ere:
estatubatuar hantustek azken hautes-
kundeetan sortu zuten zenbaketa-sal-

tsak denoi sortu zigun halako irribarre
maltzur bat ezpainetan. Gure auzokoak
ere ongi eta bizkor egiten duena egiten
ez zuten asmatu!

Inoiz edo behin tokatu izan zait ma-
haian egotea, eta han bizi izaten zen gi-
roak ez zuen zerikusirik kanpaina ga-
raian elkarri botatzen zaizkion irain eta
eztenkadekin. Ogitartekoak banatu egi-
ten ziren; irriti bakar batetik entzuten
zen Athleticek edo Relaren partida;
kafe-orduan bi alderdi desberdinetako

Kontatzetik zenbatzera

kideek elkarrekin egingo zuten ihes iz-
kinako tabernara... Ez dakit gaur egun
zer-nolako giroa izaten den. Ertzainez
eta begiratu zorrotzez, bizkartzainez
eta aitzinusteez beteriko hautes-gelak
irudikatzen ditut, non herri-giro festa-
usaineko hura erabat ezabatu den.

Hauteskundeek dena harrapatu eta
beregianatu duten egunotan, anarkistez
ahaztea da ohikoena. Batetik, ez dutela-
ko hainbestearainoko indarrik, eta dute-
na hedabideek azaltzen ez dutelako.

Eta bestetik, anarkistentzat hauteskun-
deak ez direlako sistema betikoaren lu-
zapena oinarritzeko erabiltzen den bes-
te arma bat baino. Eta arrazoiaren zati
bat ezin ukatuko diegu. Makina baten-
tzat izango da bai, gaurko botoa, bihar-
ko negarra.

Garrantzitsuak omen dira hauteskun-
de hauek. Oso garrantzitsuak. Ez dakit
zenbateraino. Adibide bakar bat jarriko
dizuet: gaur arratsaldean jokatu dute
Rai eta Eugik buruz burukoaren finaler-
dia. Euskotarrak zerbait bada, pilota
omen... Ba ez bata ez besteak ez dute
hauteskontzietara joaten lanik izango.
Gertatzen dena gertatu, lasai hartu. Ez
gara munduaren zilbor-zuloa!



Mayor familiarekin Gasteizen, eta Redondo lagun batekin Santurtzin.
Beheko irudietan, Madrazo Bilbon eta Otegi atzoko prentsaurrekoan.

Familiarekin, zorrak kitatzen

HAUTAGAIK GOGOETA EGUNEAN. Senideekin eta lagunekin egun lasaia pasatzen
ahalegindu ziren hautagaiak atzo.

Joseba Arruti | BILBO

Gaur egingo diren hau-
teskundeetarako kan-
paina ofiziala duela ha-
mabost egun hasi zen arren,
inork ez du gogoratzen jada
noiz ekin zitzaion amaitezin
bihurtu zen kanpainaurreri.
Horren ondorioz, atzokoa izan
zen alderdietako buru eta hau-
tagaiek luzaroan izandako le-
hen atsedeen eguna.

Bozen egutegi ofizialean
hausnarketari eskaintzen zaion
jardunaldia eguzki betekoa izan
zen Euskal Herri osoan, eta
gaur herritarren epaia jasoko
dutenak han-hemenka ibili zi-
ren, nekeak eragindako zama
arindu eta, bihurtik aurrera ha-
siko denari begira, arnasa har-
tzeko asmoz.

Lehendakarigaiek familiari
eskaini zioten atzoko eguna,
hainbatetan pilatutako zorren
ordainetan edo. Juan Jose Iba-
rretxe EAJ-EAko hautagaiak,
esaterako, bere jaioterri Lau-
dion (Araba) igaro zuen. Goize-
an, kirolzale ospeari eutsiz, irte-



naldia egin zuen inguruko men-
di batera emaztearekin eta ala-
ba biek, eta arratsalde parte-
an aita-amaginarrebei egin
zient bisitatxo. Argazkilariei
ere ez zient utzi atsedena apur-
tzen. Koalizio bereko Bizkaiko
zerrendaburu Juan Mari Atu-
txak ere naturaz gozatu gura
izan zuen, ibilaldi luze bat egin
eta etxekoekin egoteko.

PPk Ajuria-Enera eraman

MADRAZO

**Seme-alabak parkera
eramateko baliatu zuen
zapatua EB-IUko
lehendakarigaia**

OTEGI

**Prentsaurrekoa
emateko tarte ere
hartu zuen Otegik
gogoeta egunean**

nahi duen Jaime Mayor Orejak
familiarekin eman zituen atzo-
ko orduak, Madrildik Gasteize-
ra etorri zaizkiola profutatuz;
eta kirol pixka bat egin eta me-
zatara joan zen. Gipuzkoako
zerrendaburu Maria San Gilek
ez zuen atsedetik hartu atzo
ere, eta PPren egoitzan ibili zen
jo eta ke gaurkoari begirako
prestaketa lanei azken ukitua
emateko.



Prentsaurrekoak gogoeta egunean

Euskal Herritarrok taldeko bo-
zeramaile Arnaldo Otegik
mendira jo zuen, Izarraitz alde-
ra hain zuzen ere. Ezker aber-
tzaleko buruak egun «guztiz la-
saia» igaro nahi izan zuen eta
mendira joatea iruditu zitzaion
modurik egokiena, «daukagun
herri politaz» gozatzeko as-
moz. Erabat lasaia ez zen izan,

ordea, eguna: 12.30erako EH-
ren Donostiako egoitzan zen,
Madrilgo atentatuari buruzko
balorazioa egiten kazetarien
aurrian. Jone Goirizelaiak, EH-
ren Bizkaiko zerrendaburuak,
ez zuen aisialdirako aukerarik
izan, eta etxean egon behar
izan zuen abokatu legez dato-
rren asteen aurre egin beharko
dien kasuen kalifikazioak pre-
satzen.

Buruzagi sozialistek aurreko
guztien bide beretik jo zuten.
Hala, Nicolas Redondo Terre-
rosek emaztearekin eta alaba-
rekin paseatu zuen —eta, Ote-
gik bezala, atentatuari buruzko
prentsaurrekoa ere eman zuen,
Santurtzin—, Manuel Huertas
Gipuzkoako PSE-EEko idazkari
nagusia ere familiarekin igaro
zuen eguna, eta Javier Rojo
arabarra kanpainak kendu diz-
kion lo egiteko orduetako ba-
tzuk berreskuratzen saiatu zen.

Azkenik, EB-IUko buruza-
giek ere familiari eskaini zioten
gogoetarako eguna. Javier Ma-
drado koordinatzaile nagusiak
egunkariak irakurtzen, palan
jokatzen, asteroko erosketak
egiten eta seme-alabak parkera
jolastera eramaten pasatu zuen
zapatua. Antton Karrera Gipuz-
koako zerrendaburuak mendi
ibilaldia egin zuen Tolosa ingu-
ruan, eta Kontxi Bilbao Araba-
ko hautagai nagusia Santoñako
(Kantabria) hondartzara joan
zen.